

SECCION AMENA.



UR-ZALEA.



I.

—Adiskidea: ¿zu alzera Ur-zalea?

—Bai: eziñ ukatuko det; beñepeñ ura edaten det.

—Ez det ori esan nai. ¿Zu zera EUSKAL-ERRIA-n izkribatzen dezuna?

—Bai: Euskal-erritik kanpora ez naiz atera, eta izkribatu izan dedana, euskal-errian izkribatu det.

—Gizona; ez dizut ori galdetzen. ¿Izkribatzen dezu zuk, Donostiako, EUSKAL-ERRIA deritzaion, liburu gorri artan?

—Beñ bakarrik izkribatu det Donostian, eta orduan egiñ nuan paper zuri-zurian.

—¡Ai au lana! Euskalduna izan eta ez jakiñ EUSKAL-ERRIA-ren berri! ¿Ez dezu ezagutzen, Donostian amar egunetatik baten, argitaratzen dan errebista?

—Soldadu izan nintzanean, illean beñ pasatzen ziguten errebista-ko miñeria;¹ baña beste errebista konturik nik ez dakit.

—Oriñe da gizonari adarra jotzea. Naiago nuke erdaldun batekiñ itz egiñ zurekiñ baño.

—¿Ez ote dago euskal-errian, beste erdaraz dakienik, zu baño? Mintza zaitte, eta ikusiko degu.

—Goazen bada. Errebista EUSKAL-ERRIA, Pundador Manterola, Di-retor Arzác. ¿Konprender?

(1) Revista de Comisario.

—Izkribidor Ur-zale ¿e?

—Ori, ori... Ekatzu bostekuori eta goazen churrut bat artzera.

II.

—Adiskidea: beldur nintzan zuzaz: baña oraiñ ezagutzen det Ur-zalea etzerana.

—¿Zertan ezagutzen nazu?

—Ordu erdiren barruan iru-garren picher ardoa badaramazu, eta...

—Ni, nerez, ur-zalea naiz; baña iñoren leptik danean, ardoa, kapé, dron eta beste orrelakoak ere edan oi ditut, estimatzeagatik.

—¿Badakizu zeñ izan ditekean euskal-errian izkribatzen duan Ur-zale ori?

—Zaldibar, Gabiri, Zestoa edo Alzolara, urak artzera etortzen dan Madrill-tarren bat izango da.

—Ez, ez gizona: oyek baño iztun ederragoa da, eta euskaldun garbia.

—Baña begira: zuk, euskaldun garbia izanik, erderaz ere iztun ederra, eta erdaldun garbia dirurizu; eta Madrill-tar bat ¿ezin izan diteke euskeraz iztun ederra, eta euskaldun garbia diruriena?

—Dana dala: Ur-zale orri nai nioke bizkarra berotu.

—¿Ozpera al da?

—Ez dakit, baña gogait eragiña nauka. Egun batean deitzen dit Anton-zurrut, bestian, Gibel-andi, urrenagokoan Ardan-poto, eta gero nik ez dakit zenbat izen. Botatzen dizkit arpegira nik egiñ ditudan eta ez ditudan gauza guziak, lotsaturik uzten nauka, eta beti beldurrez nago EUSKAL-ERRIA irakurtzeko, nigatik zerbait, gezur edo egi, esango ote duan.

—¿Nola dezu izena barkazioz?

—Galtza-zar.¹

—Ez det beñere ikusi Galtza-zarraz EUSKAL-ERRIA-k ezer esaten duanik.

—Ez alegia: badakizu, Gibel-andi... Anton-zurrut eta... eta...

—Eta zu, gorputza eta anima bezela zeratela, eta kopradiako danak kandela jasotzen duala. ¿Ezta ala?

—Or orren baten. Baña igaroak igaro, beldurraren beldurrez nago jakiñgo ote duan Ur-zaleak, juañ dan jayan egiñ dedana. Laister jarriko luke EUSKAL-ERRIA n.

(1) Baltasar.

—¿Eriotzaren bat egiñ dezu?

—Ez: artu nuan moskor bat, balia baño andiagoa: kaleak ez nituan arkitzen naikua zabal, eta Jainkoak daki nola echeratu nintzan. ¡Ai ura larri errekachoko zubian pasatzeko! Zur zar bat, oiñ bete zabalekoa, zubitzat, eta ala ere, bi anak zinzilik nituala, zaldi-gañian bezela jarri, eta eskuekiñ eta mokorrarekin pauso egiñaz, aurrera mutill.

—¿Eta gero?

—Gero echeko atariko putzua uste izan nuan oe zuria zala; eta illargia krisellua; argia itzaltzen nualakoan, aize egiñ nion illargiari, eta etzan nintzan liña-putzuan.

—¿Beraz zerori ere ur-zalea zera?

—Ez, ez: zuri bakarrik ori esaten dizut: baño ez iñori esan: Urzalea nor dan jakiteagatik emango nuke picher bat ardo.

—Irakurri ezazu EUSKAL-ERRIA-ren lenengo lumeroa eta jakingo dezu.

—Ongi da: eta jipoi on bat emango diot.

III.

Euskal-erriaren Zuzendari jauna: Adiskide bati nai diodan on guzia agertzeko, izkribatu ezazu mesedez EUSKAL-ERRIA-n

GALTZA-ZARRI.

Urzaleekin beti
Ibilli kontuan
Zeren ardoak jartzen
Dituan kantuan;
Barruan daukatena
Laister da kanpuan,
Ori egiten dute
Chit betetakuan.

Arritzekoak dira
Zure zenbait aldi,
Mirariak dituzu
Egiten aspaldi;

Zubizarraren zura
Biurturik zaldi,
¿Nola zoaz, zaldia
Dagoala geldi?

Mirariak dauzkatzu
Pausuanpausuan,
Ala esaten dute
Eche ta auzuan;
Zure gorputzak nonbait
Otzikan etzuan,
Oyeko orde, etzan
Zanian putzuan.

Moskorrarekiñ dezu
Iduri balea,
Arrolaka betetzen
Dezula kalea,




Ni beti izango naiz
Egi-esalea,
Orain jakin ezazu
Nor dan Ur-zalea.

UR-ZALE BATEK.



ENBIDO TA ÓRDAGO.



—Lotsa bear zenduke;
igizon bat gaztia,
sasoi indartsukua,
izan eskalia!

—Bedorri bai ez dala
lotsaren jabia,
jorren ongi jantzi ta
limosna ukatzia!



BOTAK.



—Ire gauza batekiñ
Markoñ arritzenak;
lustriakiñ ekartzen
dituk beti botak.

—¡Mutill! bazekiagu
botak iri, Chomiñ,
gustatzen zaizkikala
geyago arduakiñ.

